

# ARRASATE

## PRESS

Arrasate 1992ko irailak 25, 163. zenbakia


ARKOk argitaratua Udalaren laguntzaz



**JABIER RETEGI**  
Hirugarren  
mundua,  
solidaritate  
kontua

**Odola ematea**

# Zainetatik bizia



ARRASATE  
KIROLAK

Astore, Nike, Reebok, Auia,  
Adidas, Converse, Mito, Ellesse,  
Boreal, Libero, Quicksilver, Le  
coq sportif, Millet, Saucony,  
L. A. Gear, etab.

Kontzeziño kalea, 8 ARRASATE  
Tfnoa: 79 46 12 Faxa: 77 05 30

**Maritxu  
Kajoi  
egunean...**

**ARRASATE** PRESS

**berria zure  
eskuetan!**

# ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

## Argitaratzailea:

ARKO. Arrasate Komunikabideak-AED  
Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE.  
Tfnoa: 77 05 65 Faxa: 77 09 40

## Laguntzailea:

Arrasateko Udala

## Zuzendaria:

Arantzazu Loidi

## Erredakzioa:

Beñardo Kortabarria, Rosa Mondragon

## Maketazioa:

Goio Arana

## Publizitatea:

Kepa Oliden

Tfnoa: 77 08 15

## Kontabilitatea:

Agurtzane Gaintzarain

## Erredakzio-kontseilua:

Jon Mujika, Karmele Zuazubiskar, Jabier  
Ozaeta, Maribel Aranburu, Patxi Montero eta  
Iñaki Mendiguren.

## Kolaboratzaileak:

Mikel Irizar, Eukeni Olabarrieta, Arantxa  
Lizaso, Gerardo Markuleta, Blanka Jauregi,  
Joseba Vallés, Karmelo Uribarren, Hankamotz,  
Atalataikoan, ASA taldea, Xabin Arrieta, Jon  
Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-  
Arraburu, Andoni Urzelai, Koldo Rodriguez, Juan  
Andueza, Udalako Ingurugiro Eskola, Juan  
Bautista Agorria, Leintz Bertsoeskola.

## Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

## Banaketa arduraduna:

J. Ozaeta

## Copyright:

ARRASATE PRESS

Tirada: 6.300 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian  
adierazitako esanetan eta eritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo  
Sailaren laguntza jaso du.



ARRASATE PRESS paper birziklatuan  
egiten da.

# Ezin hau jasan

**B**ai irakurle ausartak!. Ausartak diot, gaur egun, gero eta gutxiago garelako edozein testu arrarori begirada on bat ematen diogunak. Nahiko jende gutxi dauka irakurtzeko ohitura; bestalde, bada ez irakurtzea nahiago duen jenderik ere, idatzitako gauza askotaz nazkatuta. Bigarrena, ulertzekoa izan daiteke, baina egia esan, hain ugari gertatzen den edozein motatako informazioaren manipulaketaren berri izatea, behintzat konturatu gaitezen zenbateraino engainatu gaitzaketen.

Nik behintzat, kostata jasan dezaket nola dirudun eta agintariak, euren instrumentuen bidez (telebistak, irratia, egunkariak etab...) bizi garen mundu hau, egokia, demokratikoa eta injustizia gabekoa erakustea, hau da, kexatzeko arrazoirik ez daukagula guri sinestaraztea. Eta guk, gehienok, zera pentsatzen dugu, hau horrelakoa dela, ezin dela aldatu, ez duela bueltarik, eta hartzen dugun filosofia hau da: konpetitza; ondokoa zapaltzea, norbera gorago igotzeko. Eta hau da eurek nahi dutena. Guk geure artean borroka egitea, ez horrela bizi izatera kondizionatzen gaituen sistema honen aurka, gu bezala dagoen ondokoaren aurka baizik.

Jende ugari dago desengainatuta, baina denok batera mobilizatu beharrean, indar gehiago egiten diegu boterean daudenei, baita boterean baina ezkutaturik daudenei ere. Eurek inposatzen/irakasten dizkiguten baloreak hartzen ditugulako,

itsuak bagina bezala. Kontsumitu, ahal dugun beste; sisteman honen aurka borrokatzen dutenei, bizkarra eman, eta denetik paso egitea, bakoitza bereaz bakarrik arduratzen.

Eta guk, horrelakoak izaten jarraitzen badugu, beraiena izango da garaipena, orain arte izan den bezalaxe.


Nik badakit gaur egun, nik bezala horrelako gauzak kritikatzeko ditugunak oso gutxi gabela eta askok esango du ez duela merezi. Baina nik zera erantzuten diet hori esaten dutenei: Beharbada ez duela merezi izango, horrek danongatik burrukan egitea esan nahi duelako, eta jendea nolakoa den ikusita, bakoitzak berea bakarrik ikusten duela, hobe izan daitekeelako jende guztia pikutara bidaltzea. Baina beste alde batetik, nik eta nire antzeko beste batzuk, ezin dugu jasan guzti hau honelakoa izatea, beraz, ahal dugun guztietan kritikatzeko dugu; jakinean gainera, hau aldatzekotan denon artean edo gehiengo batek alda dezakeela, ez beste modu batera.

Beraz, ni boterea zirikatze irrikitan nagoen Arrasateko gazte bat naiz, eta horrela ihardungo dut, nire pentsamenduek jendearengaino iristeko posibilitatea duten bitartean. Esan dezaket Arrasate Press arrasatearron aldizkari honetan, orrialdetxo bat hasi dudala inguruarekiko desadostasuna daukagunok poztu gaitzakeena, eta ea honek norbait iratzartzen duen, bada ordua eta. Bitartea, "inkisizioa"ren zai geratuko naiz.

"ZIRIKATU"

IKER BARANDIARAN

Memesa  
79 42 22



**ERRASTI KRISTALDEGIA**

**Plastiko eta burdinazko hodiak  
beirina eta kristalak  
akzesorioak**

Olarte kalea, 47 behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25



Liburu eta paperdenda  
Bidaiarako eta larruzko artikuluak

Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84


## ZUBIZARRETA TAILERRAK

Gipuzkoa Etorbidea, 22  
ARRASATE Tfnoa: 79 15 65



## ileapaindegia

Tfnoa: 79 37 88  
Arrasate



Kontzezifio, 2  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 14 06

## ARAMAIO okindegia

Maisu Guridi, 3  
Tfnoa: 79 36 46

### Basurdeak, baserritarrak eta konponbideak

Azkenaldian, basati kontsideratu-tako animalia asko Udala, Santa Ageda, Aramaixo eta abarretako baserritarren soroetara jeisten hasi dira. Horietako batzuk sortzen dituzten arazoak direla eta, zer egin galdezka etorri zaizkigu, kasu honetan basurdearen arazoaz, artasailak eta bestelakoak jan eta triskantzak egiten dituzte eta.

Kontutan izan behar da basurdearen ugaritzea ez dela besterik gabe gertatu. Gure basoetan insignis pinuaren ugalketaren ondorioz sastraka ugaritu izana da arrazoi nagusienarikoa, eta baita bere depredatzaileen desagerpena ere (otsoa, harrapariak...), ugaztun horrek edozein inguruntara moldatzeko duen gaitasun izugarriaz gain.


Gure ustez baserritarrek hesiak eta pastore elektrikoak jarri beharko lituzkete basurdeak izutzeko. Edozela ere, txikizioek jarraitzen badute, eta euren sindikatuen (ENHE...) laguntzaren bidez, Diputazioko Ehiza Departamentuarekin harremanetan jartzea gomendatzen diegu baserritarrei, sail hori da eta dagoen populazio-dentsitatearen azterketa egin eta beharrezko izanez gero neurriak hartzearen ardura duena. Dena dela, Diputazioak indemnitzazioak ordaindu behar lizkieke baserritarrei basurdeen zelaietan egindako kalteengatik, Estatu espainiarreko beste Autonomi Elkarte batzuetan otsoarekin edo beste animalia batzuekin egiten den bezala.

Mikel Olabe (EKI)

### Naturzaletasunaren kontraesanak

Agur t' erdi Zuzendari Anderea: Izugarri eskertuko nizuke nire kartatxo honi argia emango bazenien, "gutunak" sailean. Atentzioa deitu dit izugarri Besaide Mendizale Elkarateak "Guara mendikatean" erreka jeitsiera bat antolaketeak, Arrasateko gazteentzat. Duela denboratxo bat, Besaidek antolatuta gainera, Monterronen izan zen hitzaldi bat "Gizakiaren eragina Naturarengan" titulupean eta uste dut konklusio politik atera zirela mendi edo naturako ekintza masifikatuei buruz. Orain, berriz, aprobetxatu beharko lukete zuzen zuzenean konklusioak ateratzeko eta erreka guzti horietako berezko biztanleei —urtxakur, ugario, sai, suge, amuarra, ahate etab.— beraien asteburu bateko gozamenak zenbat sufriarazten dien galdetzeko. Zuen eraginari buruzko konklusio garbirik ekartzen baduzue, bete da helburua!!

J.E.L.



**MECA-RAPID**

- Ikusentzunezko mekanografia. 200 eta 300 pultsazio minutuko.
- Irakaskuntza garantizatua.
- Ordenagailu bidezko mekanografia
- Master V. D. takigrafia.

Otalora, 3 1.C ARRASATE Tfnoa: 79 68 53

# Zer erizten diozu toki-publikoetan erretzea debekatzeari?




**Marcelina Rodriguez**  
(Etxekoandrea)

Oso oso ondo iruditzen zait, eta errespetu dadila, etxean nahiko lan izaten bada ere.



**Jose Luis Barrio**  
(Langilea)

Ni erretzailea naiz eta denbora apur bat pasa dezaket erre barik, batez ere autobusen bat edo hartzen badut.



**Antonio**

Ez diot garrantzi gehiegi ematen, erretzea nahi duenak erre egingo du eta. Norberak pentsatu beharko du.




**Vitoriana Sanchez**  
(Etxekoandrea)

Oso ondo dago, toki publikoetan ez da erre behar.



**Bittori Ganuza**  
(Etxekoandrea)


Ondo iruditzen zait, uste dut gustatzen ez zaionari errespetua sor zaiola.



**Rafael Seguí**  
(Anbulategiko langilea)

Uste dut toki publikoetan ez erretzea ondo dagoela, batez ere toki itxiak badira. Ni erretzailea naiz, baina aurrean jendea dagoenean ez dut erretzen.

**Urritik aurrera...**



**KATAIDE**  
J A T E T X E A

Kataide poligonoa.  
Tfnoa: 79 60 10  
ARRASATE

*asteburuetan  
kanpoan afaltzeko*

**EZ DIRURIK JAN.**

**KATAIDE jatetxean  
zeure neurriko afariak  
dauzkagu.**

**Sabelerako eta poltsikorako.  
1.300 PTA.**

**BEHARREZKO TELEFONOAK**

**ERITETXEAK**

Arrasateko Eskualde-Ospit. ....	79 53 00
Igualatorioa .....	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea	
(gizonak) .....	79 39 00
(emakumeak) .....	79 44 11
Buru osasunerako zentrua .....	79 90 11

**GURUTZE GORRIA**

Bergara .....	76 55 76
---------------	----------

**DYA**

Antzuola .....	76 62 91
----------------	----------

**ANBULATORIOAK**

Arrasate (Larrialdiak) .....	79 13 57
(Txanda hartzeko) .....	77 03 46
	77 07 21
Oñati .....	78 08 52
Eskoriatza .....	79 98 58
Aretxabaleta .....	79 74 58
Aramaio .....	(945) 45 51 16

**ANBULANTZIAK**

Gipuzkoako anbulantziak .....	45 87 44
-------------------------------	----------

**UDALTAINGOAK**

Oñati .....	78 04 11
Bergara .....	76 14 69
Arrasate .....	79 14 39
Aretxabaleta .....	79 10 52
Eskoriatza .....	79 03 22

**ERTZAINZA**

Arrasate .....	79 71 99
----------------	----------

**SUHIHTZAILEAK**

Udal taldea .....	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile	
burua .....	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea .....	78 28 00

**MATXURAK**

Urak (udal zerbitzua) .....	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero) .....	79 05 81
Gasa .....	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78

**GARRAIOAK**

Taxiak .....	79 12 22
P.E.S.A. .....	79 14 19

**HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ZENTRUAK**


Iturbide Egoitza .....	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza .....	79 81 57

**KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA**

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak .....	79 87 77
KIUB-OMIC .....	79 51 55

**MONTERRONGO LIBURUTEGIA**

Monterron .....	77 01 05
-----------------	----------



25

**OSTIRALA**

- Zinea: Alai: "Paro clínico" (7.30-10).
- Hitzaldia, "Gogortasuna eta borroka armatua Euskal Herrian". Xabier Alegriak emanda, Monterronen arratsaldeko 7etan.
- Taun-taun-en emanaldia, Monterronen gaueko 10etan.
- Garagartzako jaiak: arratsaldeko 7etan jaien hasiera, 7.30eta erromeria Arrasateko trikitilariekin eta gaueko 11etan dantzaldia Txintxarri taldearekin.
- Goardiako farmazia: Corcuera, Musakola.

26

**LARUNBATA**

- Zinea: Alai: "Mediterraneo" (5-7.30-10)



**Futbola**

- Mondra-Bortziriak, emakumeak, igandean 11etan.
- Mondra-Touring, igandean 4.30etan Atxabalpen.

**Pilota**

- San Miguel txapelketako azken partidua, Aretxabaletako Iturrigorri frontoian, gaur gaueko 10etan.

**Txirrindua**

- Jubenilak, igandean Aretxabaletan goizeko 10etatik aurrera.

- Garagartzako jaiak: 12.30etan haur jolasak, 5etan dantza txapelketa, 7.30etan Peña-garikano eta Jon Sarasuaren bertso-saioa, eta 11etan dantzaldia Eguzki-rekin.
- San Miguelak Aretxabaletan: Diana goizeko 10.30etan. Meza, Loramendi dantza taldearen laguntzarekin, 12.30etan. Jubilatuentzat bazkaria, Kirol-Etxean ordubatean. Erromeri bazkaria plazan 2.30etan. Bertso, saioa 6etan. Bolo Txapelketa eta dantzaldia Maixa eta Itziarrekin, gaueko 11etan.
- Goardiako farmazia: Irizar, Erguin.

27

**IGANDEA**

- Zinea: Alai: "Mediterraneo" (5-7.30-10)
- Garagartzako jaiak: 12etan meza, 12.30etan Txikitxu dantza-taldearen emanaldia,

- 2.30etan herri-bazkaria eta arratsaldeko 6etan erromeria Txinparta taldearekin.
- San Miguelak Aretxabaletan: Antzerkia, "Traperos del río" 12.30etan. Ikuska txaranga-rekin kalejira 4.30etan eta dantzaldia 7.30etan.
- Gudari Eguna dela eta, manifestazioa, Portaloian arratsaldeko 7etan.
- Goardiako farmazia: Amezua, Santamaina.

28

**ASTELEHENA**

- Zinea: Alai: "Mediterraneo" (7-9.30)
- Goardiako farmazia: Aurora Ruiz, Maala.

29

**ASTEARTEA**

- Zinea: Alai: "Mediterraneo" (7-9.30)
- Hitzaldia: Maastricht-en gorabeherak ulertzeko moduan. Hizlariak: Jose Mari Agirre EUSTATEko Zuzendaria eta ekonomilaria eta Luzien Etxezarreta, Iparraldeko kazetaria Egunkarian. 19etan Monterronen AEDK antolatuta.
- Goardiako farmazia: Morales, San Andres.

1

**OSTEGUNA**

- Goardiako farmazia: Egunez: Español, Iturriotz. Gaeuz: Guallar, Bergara.

## Deialdiak

### • Gudari eguna

Lehenengo eta gaurko gudarien alde, "Gudari eguna 92" antolatuta du KASek. Ostiralean arratsaldeko 7etan Monterronen "Gogortasuna eta borroka armatua Euskal Herrian" mahainguruia izango da, eta bertan ETari buruzko elkarrizketa baten bideoa ikusiko da. Aurkezlea Xabier Alegria izango da. Igan-dean berriz, arratsaldeko 7.30etan manifestaldia izango da Portaloian.

### • Lizarra Elkartea

Lizarra Elkartek drogo-menpekotasunari buruzko argibideak eskaintzen ditu Dr. Bañez kaleko lehen zenbakian, Torre Txindokiko behean behar duten guztientzat. Ordutegia honako hauxe: asteleheneetik ostiralera goizeko 9etatik eguerdiko 1etara. Telefonoz deitu nahi izanez gero, hauxe duzue: 79 19 21.

## Ikastaroak

### • Yoga

Arrasateko Yoga Elkartek antolatuta, irailaren 28tik azaroaren 25era Yoga Haserako ikastaroak burutuko dira. Ikastaroa astelehen eta asteazkenean izango da, goizeko 10etan, arratsaldeko 6.30etan eta gaueko 8.30etan. Informazio gehiago eskuratu edo inskripzioak egiteko 79 35 76 telefonora dei daiteke edo Iñarra Pasealekuko 28. zenbakira jo.

## Deialdiak

### • Kilometroak 92 Oartzunen

Urriaren 4ean Oartzunen "Euskarari gogor, gogoz eran-



## Garagartzako jaiak

### Jolasak, dantzaldiak eta buzkantza paregabeak

Garagartza auzoan jaiak izango dituzte ostiraletik igandera arte, eta horretarako ekintza egitarau zabala antolatuta dute. Jaiak hasteko, toki askotan egiten den bezala, etxafleru eta bonba japoniarren jaurtiketarekin batera, buruhandi eta dultzainariekin kalejira, gaur arratsaldeko 7etan. Hori bukatu eta gero, Arrasateko trikitilarietako erromeria eta gauerdian, Txintxarri taldekoak atsedean hartzen dutenean, Lamia eta Neanderthal gizonei ongiatorria emango zaie.

Larunbat goizean, haurrentzat jolasak antolatuta dituzte eta arratsaldean, berriz, dantza txapelketaz gain, Angel Mari Peñagarikano eta Jon Sarasuaren bertso-saioa; gaueko 11 etatik aurrera dantzaldia Eguzki taldearekin.

Jaiak igandean bukatuko dira, ohizko meza eta Txikitxu dantza taldearen saioa izango dira goizean, herri-bazkaria ondoren eta arratsaldeko 6etan, jaiei datorren urtera arte esanez, Txinparta taldearekin erromeria.

tzunez" Ilemapean Kilometroak-92 ekitaldia ospatzen dela eta, AEDk autobusak antolatuko ditu. Autobusen irteera goizeko 9etan izango da, Zaldibarko frontoi paretik, iluntzean bueltatzeko. Autobuseko txartelaren prezioa 750 PTAtan jarri da eta izen-ematea Hire, Iturriotz

edo AEDn bertan egin daiteke, urriaren 2a baino lehen. Epea aipatutakoa bada ere, komenigarria izango litzateke izenak ahalik eta azkarren ematea, azken orduan autobusak kontratatzeke arazorik izan ez dadin. Gogoratu iaz AEDk hamaiazpi autobus kontratatu behar izan zituela.

### • Aretxabaletan ekitaldi ugari datorren astean

Aretxabaletako Hirugarren Mundu taldea herrialde pobreei eskeinitako astea antolatu dute. Astelehenean herrialde pobreei

buruzko diapositiba emanaldia izango da 8etan. Asteartean, berriz, arratsaldeko 7etan Udaletxeko Ganbaran "Zergatik lagundu? Nola lagundu?" hitzaldia izango da, hizlaria Sebe Zubiri, "Mugarik gabe" taldeko ordezkaria izango delarik. Asteazkenean mural erraldoia arratsaldeko 6etan Mitarte kalean, hau da, horman jarteko da herriko haurren artean. Arratsaldeko 8etan Herrialde pobreei buruzko diapositiba emanaldia izango da Valdezate taberna parean. Ostegunean beste hitzaldi bat: "Hirugarren munduko egoera eta Euskal Misioen funtzioa", Bittor Garaigordobil, mi-



siolariaren eskutik. Ostiralean beste diapositiba emanaldi bat izango da, arratsaldeko 8etan, Arlutz tabernaren ondoan.

### • HIESari buruzko astea

Deba garaiko HIESaren aurkako batzorde hiritarrak, ekitaldi desberdinak antolatu ditu datorren asterako. Alde batetik hitzaldiak izango dira. Astelehenean "VIH/HIESaren aspektu nagusiak" izenekoa, asteartean "HIESa eta sexualitatea" eta asteazkenean "HIESaren oraina eta geroa Euskadin". Hitzaldi guztiak Gaztetxean izango dira arratsaldeko 7etan. Hitzaldi horietaz gain, kartel erakusketa bat zabalik egongo da aste osoan Euskaltegian. Eta azkenik, igande eguerdiko 12etatik 2etara, herrigunean Informazio Mahaia izango da.



“..... Jendea pragmatizatu egin da. Amak etorriko dira seme-alabekin hitzegiteko lain ikastera, gehiago ez, punto. Eroskiko kajera bat etorriko da jendearekin hitzegiteko lain ikastera. Enpresa bateko norbaitek beharbada maila altuxeagoa lortu nahiko du. (...) baina ez da bakarrik gure kontua. Arrasaten AED esistitzen da, eta oso inportantea da horren lana, oso ondo ari dira egiten, heldutasun handiz. Gero Arrasate Press aldizkaria dago, Arrasate Telebista, guzti horren ondorioz asko euskaldundu da gure herria. Guk, euskaltegi bezala lortu duguna izan da zenbait jenderen jarrera aldatzea, batez ere guraso erdaldunen artean. Hemen badaude auzoak kasik erabat erdaldunak direnak. Horien seme-alabek telebista pizten zutenean, lehen beti berdina zen, ‘apaga eso’, gurasoen aldetik. Orain, beraiek zerbait ikasten hasi direnetik onartzen dute umek Euskal Telebista ikustea. Hori inportantea da”.

(Nati Abasolok Diario Vascon. 92-9-16an)

“..... Ordua da bakebideratze eta elkarriketako proposamen serioekin lan egiteko. Ezin dugu egun guztian esaten jardun: goazen denok batera indarkeriaren aurka. (...) gaia trena demagogiko bezala erabiltzea da arazoa. Ez da normala Ajuria Eneako mahaitik alderdiak gauzak ezberdin interpretatuz irtetea. (...) bakebideratzea bandera partidista bihurtzea da arazoa, eta guk ez dugu hor sartu nahi. (...) orain ezin da hitzegin atentatuek jarraitu egiten dute eta, baina ezin dugu pertsiana jetsi, bestela anklatuta egongo ginateke eta, orain hamar urte bezala”.

(Esther Larrañagak Eginen. 92-9-21ean)

**Arrasateko merkatalgoaren etorkizuna 2000. urtean?**



Argi dago merkatal ihardueren bizitzan, erosketak, antolakuntzak, giza-baliabideak, enpresen zuzendaritzak, marketing-ak eta bezeroarekiko harremanak izugarriko garrantzia dutela.

Modernizazio eta lehiakortasun faktore horiek ikusita, jakin daiteke Euskal Herriko, eta noski, Arrasateko merkatalgoak zein etorkizun izango duen. Arazoak, begibistan: gero eta merkatal iharduera gehiago daudela ikus daiteke, gainera merkatal-enpresa handiak direla. Ondorioz, merkatal-enpresa txikientzat esparrua mugatu egiten da eta merkatu bateratuak gainera ez dio mesederik egiten, prezioak jaitsi egin beharko dituzte eta. Erronkari aurre egiten ez dioten dende, konpetitibitate maila lortzen ez dutenek itxi egin beharko dute.

Arrasate merkatal aldetik inguru ona dela esan daiteke, biztanle gehienak bertan egiten bait dituzte erosketak. Duela 7 edo 8 urte merkataritzarako gune hobea zen dena dela: ordutik hona, merkatal iharduera asko handitu da, baina bizilagunen kopurua ez. Horren aurrean, Arrasateko merkatariek bailadara begiratu beharko dute, publizitate gehiago egin beharko dute eta antolakuntza hobea izan.

Neurririk hartzen ez bada, txarrera joango da egoera. Normalena, denda asko ixtea izango litzateke, eta gertatu ere, hori gertatzen ari da, irekitzen diren denda berrien erdiak ez ditu bost urte baino gehiago zabalik pasatzen; zaharrek, berriz, modernizatu beharra daukate.

JUAN JOSE DE ANDRES,  
IKERTALDE ENPRESAKO PARTAIDEA

**BEROGAILU  
ETA GAS  
INSTALAZIOAK**

**CLEGAS**

Garro Jenerala, 2 -1 ezk. Tfnoa: 77 00 77 ARRASATE  
Romualdo Galdos, 22, P-13. Tfnoa: 11 40 64 EIBAR  
Particular de Ategorrieta, 2 etxabea. Tfnoa: 27 39 20 DONOSTIA

**MUSAKOLA  
OSTATUA**

**Taberna  
Jatetxea  
Bazkariak  
Bodak  
Banketeak  
Gelak**

Gipuzkoako Etorbidea z/g  
Tfnoa: 79 20 50




# 2

# IKASTARO

Gazte Zerbitzuaren eskutik

---

## ARGAZKIGINTZA



- Hastapen maila
- Iraupena: urriak 13 - azaroak 12
- Astearte eta ostegunetan
- Orduategia: 7etatik 9etara
- Matrikula: 1.000 PTA
- Plaza Mugatuak!!

---

## EUSKAL DANTZAK



- 14 urtetik gorakoei zuzendua
- Iraupena: urriak 16 - abenduak 18
- Ostiraletan
- Orduategia: 7.30etatik 9etara
- Plaza mugatuak!!

Izen emate eta informazio gehiagotarako:  
Gazteentzako Informazio Bulegoa.

Tfnoa: 77 00 65



**□ Musakolan obrak hasiko**

Hemendik denbora gutxira Musakolan ur-saneamendu eta argiteria osoa berritzeko lanak hasiko dira, lau hilabetetan bukatzeko asmoz. Lanak Elecnor enpresak burutuko ditu, eta horretarako 51 milioitako aurrekontua erabiliko du. Lan horrekin batera, eta aukera hori aprobetxatuz, Naturgas-ek gasaren instalakuntza ere egingo du; horrela, auzo osoko zerbitzuak berriztu egingo dira.

**□ Zakarrontzi berriak**

Joan den asteko Gobernu Batzordeak erabaki zuenez, Udalak 1.269.216 PTAगतिक 176 zakarrontzi berri erosiko ditu; beraz, zakarrontziko 7.200 PTA ordainduko du. Zakarrontziak poliki-poliki herriko auzo desberdinetan jarriko dira: 60 Erdikaldean, 33 Musakolan, 35 San Andresen, 20 Uribarri-Erguinen eta 10 Santamañan. Gainontzekoak, berriz, beharra dagoela ikusten den tokietan jarriko dira.

**□ Ingeleseko azterketak**

Cambridge-eko azterketak egin ahal izateko matrikula-epaia, irailaren 30era arte zabalik egongo da Ahizke-Cim ikastetxean. Azterketak, First, Advance eta Proficiency mailetan izango dira. Informazio gehiago nahi izanez gero, 79 01 32 telefono zenbakira dei daiteke edo bestela Ahizke-Cim-era joan.

**ONGIETORRIA JAIÖBERRIEI**

Aitor Bedia Sanz, irailaren 14ean.  
Leire Aranegi Mateo, 17an.  
Maite Bermejo Morales eta Ainhoa Bermejo Morales, 21ean.  
Ainhoa Diez Minuesa, 21ean.

**ZORIONAK EZKONBERRIEI**

Eugenio Bernabe Balzategi Garai & M<sup>a</sup> Teresa Oruna Lopez. Irailaren 12an. Elizaz.  
Francisco Alejandro Etxagibel Alberdi & Ana Isabel Iria Ugarte. Irailaren 19an. Elizaz.

# Txandaka

## MONDRAKO DENBORALDIARI BEGIRA

**L**ehengo eta behin, futbola asko gustatzen zaidala esan behar dut, asteburu askotan ikusi izan ditut lau edo bost partidu, baina ez telebistaren aurrean, futbol zelaira joanda baizik. Futbolzalea betidanik izan arren, futbolaren munduan sartuta hamasei urte besterik ez daromat. Makatzenan delegatu bezala Roman Lopez Rubioren eskutik hasi nintzen eta berarekin asko ikasi nuen. Lehendakaritza ere eraman nuen urte batzuetan.



Jose Luis Ezkurra (\*)

Ondoren, hiru bat urte egon nintzen futbola jarraitzen baina kanpotik. Tarte horretan beste esperientzia bat eduki nuen, Mondragol, ATBn, iazko denboraldian. Hala ere futbolera loturik nengoen eta nire betebeharra saio horretan Mondraren partiduen komentarioak egitea zen; nire eskerrak saio hori egiten lagundu zidaten Arrasate Telebistako lagunei. Mondragolen komentatu nuen azken partidu hartan, Sodupe-Mondra hartan, nork esan behar zidan niri hurrengo denboraldian Mondra taldeko presidente izango nintzela berriro.

Baina beno, benetako asmorik gabe gainera, baina inguruko lagun on hauek posible egin dute. Gure asmo guztia berriro Mondra bere tokian ipintzea da eta horretarako lan asko egin beharra daukagu, baina lan hori denon artean egin behar dugu: direktiba, jokalariei eta mon-

dragoetar guztion artean, eta horrela zerbait positibo aterako dugula uste dut.


Aurtengo denboraldian gure nahia, 3. mailako Mondrarekin daukagun proiektuarekin batera gazteak prestatzea da; orain arte jubentilekin ez da lan askorik egin etorkizunera begira, baizik egin dena batez ere etapa bat

kunpliaraztea izan da, hau da, jubentiletan jokateko edadea dagoen bitartean maila horretan jolastu eta 19 urte bete ondoren Mondran jokatzeko maila izanez gero taldean sartu eta bestela irten.

Hori konpontzeko, jubentile guztiak Mondrako promesa balira bezala eta edozein arrazoiengatik Mondran jokatzeko posibilitaterik ez balute, herriko beste talde baten jokatzeko aukera izan dezatela, San Andresen hain zuzen ere. Lan hori ez da erraza baina beste urte pare batean loitu daitekeen esperantza daukagu, proiektua aurrera ateratzeko entrenatzaile eta laguntzaile argiz inguratu gara eta.

Azkenik nik, nire direktibarekin batera, afizionatuoi eskatuko nizueken gauza bakarra laguntasuna izango litzateke, gure Mondra zuen animoekin mezezi duen tokiraino igo dadin, entrenatzaile bikote horren seriotasunak eta jokalariei guztien ilusioak ez daukate mugarik eta.

(\*) **MONDRA-KO LEHENDAKARIA**




Zurgin Kantoi, 2 Tfnoa: 79 20 04 ARRASATE

**NAROKI**  
Urrezko bitxiak

**NAROKI**  
Opariak, Jostailuak, Liburuak,  
Paperdegia

Erdiko kale, 23 ARRASATE Tfnoa: 79 20 47



Jendea mozkortuta, baina nahiko ondo portatzen dela zioten tabernariak.

## Maritxun tabernariak lan gehien

### Kalimotxoa, garagardoa eta txanpaina nagusi

Erdialdeko zortzi tabernetan egin-dako galdeketaren arabera, tabernariak Maritxu Kajoi egunerako edari gehiago ekartzen dute, asteburu normaletarako baino bi edo hiru aldiz gehiago, hamar bider gehiago ekartzen duela esan duenik ere badagoen arren. Asteburuetan bezala, kalimotxoa eta garagardoa lirasteke gaueko errege-erreginak; txanpaina berriz, bai Maritxurako ateratzen dena eta baita gainontzeko markak ere, ohorezko damak. Egun jakin horretan protagonista nagusi izanik edariari mesprezurik egin ezinik, tabernari guztiak aitortzen dute, bakarrik kristalezko edalontziak erabiltzen dituztela, apurtu edo galtzen direnak asko badira ere. Kasu batean aipatzen zen iaz, kristalezko barik geratzean, azken orduan plastikozko edalontziak atera behar izan zituztela.

Jendearen portaerari buruz denetarik entzuten da tabernarien artean, ber-

takoak ondo baina kanpokoak txarto, denak mozkortuta baina jator, jendea asko desmadratzen dela, une batzuetan tabernak zoologikoa dirudiela... baina badirudi orokorrean tabernariak gustora daudela jendearen portaeraz, eta "nahiko ondo" izan zen erantzunik zabalena. Horren ondorioz, tabernari gehienak komuna zabalik izaten dutela zioten, kasu batean, "ikustekoa da nola lagatzen duten, denetarik egiten dute" esanaz, itxi egiten dutela aitortzen bazuten ere.

Jende asko ibiltzen da Maritxu Kajoi egunean eta etxera joateko presa barik, horregatik tabernetan, normalean baino kamarero gehiago ibiltzen da eta ixteko orduari dagokionez, gehienak 6ak edo 7ak inguruan ixten dute, 4etan eta 8etan ixten duenik badagoen arren. Egun hortan ateratzen den diruaz galdetzerakoan, ia bat bateko erantzuna: *top secret*.

## Usteak uste

Azken bolada honetan sarri irakurri izan ditut artzaiei dagozkien albisteak. Alde batetik gazta txapelketak direla, bestetik txakur lehiaketak, egia esan badirudi modan daudela, behintzat bizirik dirautela jakin izan dugu, batzuk ez bada ere. Hori bai, albiste horiek ez dute ezer aipatzen izan daitezkeen arazoei buruz, ekonomikoak, azpiegitura, planifikazio eza...

Eta honek zera gogorarazten dit: egon zen garai bat, ez da hainbeste denbora, (Europar sartu behar genuela eta), artzantza baserritarrentzat etorkizun bezala planteaitu zena, hainbat baserritarrek behintzat horren uestea jaso zuten, eta artaldeak ugaldu ere egin ziren.

Harrez gero ez dut ezer entzun izan, han hemenka, ilusio handiz hasitako jendeak bertan behera utzi behar izan dituela artaldeok baino.

Bestalde, badirudi industria arloko lan munduan murgildurik bizi garenontzat gero eta folklorikoagoa bihurtzen ari dela artzantza mundua eta baserri mundua oro har, horri zeharo bizkarra emanda bizi ez garenean. Eta ez gu bakarrik, instituzioen aldetik ere gauza bera dirudi.

Badakit gai hau askorentzat ez dela interesgarria izango, urrutiko gauza bat bailitzan, badakit, gehiago sakondu beharra dagoela, baina gauza bat izan behar dugu kontutan: herri batek aurrera egiteko sektore guztien beharra duela, eta sektore horiek bizirik mantendu behar ditugula, ez "zein txakur argial" esateko bakarrik, bestela laster izango ditugu arrantzaleok portu. aurrean euren arrain-ontziokin, epaimahaia jarri eta nork duen arrainik ederrena erabakitzen.

AMAIA JAUREGI-ARRABURU

**ITURRIOTZ taberna**

**GIRORIK  
JATORRENA !!**

Tfnoa: 79 16 04



**SAMEGO  
GARBIKETAK**

Uriburu, 24  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 70 39

□ “Ekin Euskarari” erakusketa Monterronen

Joan den ostiralean “Ekin Euskarari” erakusketa zabaldu zen Monterronen. Ekitaldian Xabier Zubizarreta alkatea eta Roman Berriozabal, Hizkuntz politikarako idazkari ordea. Euskara eguneroko bizitzan arlo guztietan erabiltzeko bide berriak eskeintzea da erakusketaren helburu nagusia. Panel desberdinetan euskara gizarteratzeak esan nahi duena azaldu nahi da. Ordenadore bidez, Euskal Komunitate elkarteko demolinguistikazko datuak eta hizkuntza politikarako idazkaritza nagusiaren eginbeharrak erakusten dira.

□ AUKEAko bilera

Musakola eta Iturripeko kiroldegietako frontoiak, kantxak, tenis pistak edo squash-a egiteko tokiak alokatu nahi dituztenentzat, AUKEAko arduradunek bilera bat antolatu dute. Bilera, bihar burutuko da, Musakolako kiroldegian goizeko 11etatik aurrera.

□ Paper birziklatuaren alde

Eguzki, ekologista taldeak, Arrasate eta Bergarako Udalei eta Mankomunitateari paper birziklatua erabili eta paper eta kartoi biltzeta bultzatzeko eskatuko die, baliabide naturalak defendatzeko orduan lehen pausoak administrazioak eman behar dituela uste du eta. Horretarako, bi Udalei eta Mankomunitateari astean egun bat papera biltzeko jartzeko eskatuko zaie.



Aurten, 200 ikasle inguruk ikasiko dute Arrasateko Helduentzako Heziketa Iraunkorrea.

## Helduak ere hasi dira klasean

### *EPAn Eskola Graduatua lortzea da helburu nagusia*

Helduentzako Heziketa Iraunkorra eskolak matrikula epea zabalik du hilaren bukaera arte, baina, plaza mugatuak dituzenez, ia guztiak beteta daude, irakasle eta toki-faltan.

Orain bost urte eskola sortu zen, oinarrizko heziketan, alfabetazioa eta eskolako graduatua lortzeko beharrezkoak diren ikasgaiak ematen dira. Hasieran bi irakasle bakarrik zeuden eta ikasleen kopurua ere txikia zen. Gaur egun, 200 ikasle inguruk ikasten dute bertan.

Ikasleak gazteak zein helduak izaten dira, “gehienak etxeakoandreak eta

baita lanean dabilen jende gazteak ere gaez. Arratsaldeko klasean, berriz, 60 urteko bi pertsona ere badaude” dio eskolako arduradun batek. Ezagupen mailari dagokionez, batzuk idazten eta irakurtzen ikastera datoz, beste batzuk irakurtzen dakitenak eta praktikatzera datozenak dira eta azkenik gauza biak jakin baina graduatua atera nahi dutenak leudeke.

Klase guztiak erderaz dira eta arduradunek klase batzuk euskaraz eman nahi izan arren, ikasleek muga asko ikusten dute, “Erderaz kostatzen egiten bazait, nola nahi duzu euskaraz ikastea?”.

**DUO DISEÑO**

- OBRAK
- BARRUAK
- BULEGO-ALTZARIAK
- PROIEKTUAK
- OSAGARRIAK

Iturriotz, 21  
Tfnoak: 79 28 86 / 77 14 94  
ARRASATE

**ERAKUSKETAREN  
ALDAKETA  
DELA ETA,  
PREZIO BEREZIAK  
IRAILETIK AURRERA.**



Maltzaga-Urbina autobideari lehentasuna eman nahi diote Soraluzean bildutako alkateek.

## Maltzaga-Urbina eztabaidagai

### Alkateak ez zuen Soraluzeko bileran egoterik izan

Joan den ostiralean Soraluzeko Udaletxean Deba bailadako hamasei Udalerrietako hamar alkate bildu ziren, Maltzaga-Urbina autobidearen aldeko aldarrikapena eginez.

Aipatutako bileran ez zen Arrasateko ordezkariarik izan, eta komunikabideren batek ausentzia horri berebiziko garrantzia eman zion. Xabier Zubizarretak adierazi zuenez, Arrasateko Udaleko ordezkariak ez zuten bilera horretan egoterik izan, Gobernu-Batzordekideek, egun eta ordu berean Gasteizen, SPRI-rekin Udalak eskuar-

tean darabilen proiektu bat aztertzeko bilera zeukaten eta. Horretaz gain, badirudi, Soraluzeko bileraren berri ematen zuen fax-a ostiral arratsaldean iritsi zela Arrasateko Udaletxera, beste bilera egitea aurrez pentsatzen zenean.

Soraluzen egindako aldarrikapenaren inguruan, Xabier Zubizarretak esan zuen Maltzaga-Urbina autobidea proiektuari buruzko debatea, errepideetako plan orokorrean kokatzen zuen, eta ez egunkarietan egindako adierazpenetan, "administrazioan lan gehiago eta egunkarietan gutxiago" zioen.

### □ Gurutze Gorriko datuak

Deba Garaiko Gurutze Gorriak emandako datuen arabera, uztaila eta abuztuan zehar anbulantziek 304 irteera egin zituzten, gehienak trafiko istripua, premiazko lekualdatzeaz eta zerbitsu berezien ondorioz. Arrasaten, trafiko istripuak 4 izan ziren, kirol istripuak 1, lan istripuak 2, bestelako istripuak 13, alkoholezko intoxikazioak 2, premiazko lekualdatzeak 31 eta zerbitsu bereziak 13. Trasladatutako pertsonak, azkenik, 108 izan dira: 71 arinki zaurituak, larri zaurituak 31 eta hildakoak azkenik 6.

### □ Pisuak gutxitu fisikoentzat

Gorostizako babes-ofizialeko etxeetan gutxitu fisikoentzat hiru etxebizitza egin behar dituztela eta, Udalak eskariak egiteko epea ireki du, urriaren 16ra arte. Eskari-orrria Udaltzaingoaren aretoan jaso beharko da, bete, eta aurrez telefonoz deituta Gizarte Ongizate Zerbitzura eraman, dokumentazio honekin batera: 1991ko aitorten fiskalaren fotokopia, famili-liburua, normalean etxebizitzan egongo direnen NAN-aren fotokopia, errolda agiria eta gutxitu fisiko agiria.

Hiru etxebizitza horien eskatzaileek urtean 1.500.000 PTA baino gehiago eta 4.300.000 PTA baino gutxiago irabaztea, gutxienez 1990ko urtarrilaren 1etik Arrasaten enpadronatuta egotea, eta etxerik ez izan edo etxe egokirik ez izatea dituzte baldintza bezala.



**DAMKART**  
Estetika eta ileapaintzaile  
Eskola  
M.E.C.-ek homologatua

Bitor Sarasketa, 7-3.  
Tfnoak: 12 15 18 / 12 71 52 EIBAR

comercial  
san juan

Garibai, 12  
Tfnoa: 79 13 05


hikein  
MARKO-JARTZEAK

Zerkaosteta, 4  
Tfnoa: 79 13 84


**BURGALES JATETXEA**

Jaki goxoak eta giro atsegina

Durana, 12 ARETXABALETAK



**Japoniar nekazari talde bat Arrasaten izan da** pasa den astean. Kooperatiben esperientzia ezagutzeaz gain, bertan izan diren kultur ekimenetan interes handia jarri zuten eta zentzu horretan, AED eta ARRASATE Pressek eginiko lanaz ere faldetu zuten



Ostiralean **Oldarra dantza taldeak** lobra antzeztu zuen Monterronen. Ez zen jende asko bildu baina hala ere, txalo asko jaso zituzten.

**Asteartean 35. urtekoek kinto eguna ospatu dute.**

Eguerdiko 12etan meza izan zuten Parrokian, Sagasta organu joleak meza emanda. Ondoren bazkari zoragarri batekin ospatu zuten eurentzat izan zen egun handia. Datorren urtean ere animatu! ▶



**E · S · T · U · D · I · O**

I N T E R I O R I S M O A

- Dekorazio proiektuak
- Lokal komertzialen eta etxebizitzaren eraberrikuntza
- Gremioetako ekipo osoa
- Diseinu orokorra

Garibai, 3 bis  
ARRASATE  
Tfnoa: 77 01 44



**AMETS  
TAILERRAK**

HERGO karabanen banatzailea

**ZUEN KARABANAK  
ATERPEAN GORDETZEN DITUGU**

Araba Etor., 4  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 01 32

  
Koop. E.

Olakua, 14  
OÑATI  
Tfnoa: 71 60 00


**ALEMANA    FRANTSESA    INGELESA**

**Maila guztiak. Umeak, gazteak, helduak. Goizez eta arratsaldez.**

**ZATOZ GURE BULEGOETARA!**  
(Goizeko 9etatik 1etara eta arratsaldeko 4etatik 8etara)



Berezano auzoa. OÑATI  
Tfnoa: 78 25 92 / 78 19 50



*Izen*  
**PROPIOAK**


● **Maria Victoria Vitisación Zabaleta**, 22 urteko bergararrak lortu du Udalako Ingurugiro Eskolan urte betez elkarlanean aritzeko beka. Bergarar gazte honek aurten bukatu ditu majisteritza ikasketak, Eskoriatzako Irakasle eskolan, eta zientzia adarrean.

● **Urri Urizar**, 25 urteko arrasatearrak hainbat denboraldietan emakumezko Mondran jokatu ondoren, futbola utzi egin du. Hori dela eta, orain artean talde-kide izan direnek omenaldi txiki bat eskaini zioten, lora-sorta eta elkarrekin egindako afariaren bidez.


● **Hilario Aransaez** arrasatearrak, Loteria Primitiva delakoan, 274 milioi irabazi zituen. Hilario, frontoietako apustu-artekaria da eta badirudi azken astea Errioxa aldean igarotzea, etxean behintzat ez da egon. Sariaren berri izan zutenean esandakoaren arabera, Hilariok ez du lana uzteko asmorik.

Gogoratzen duzue, **Postal Lehiaketa** egin genuela, ezta? Sariak banatu ditugu eta jasotzen ere etorri dira. **Aritz Iñurrategi** bigarrena jaso zuen, liburu sorta eskuratuz. Eta lehen saria **Blanka Etxebarria** jaso zuen, afaria. Saria jasotzeko Arrasate Press-en izan ziren eta argazkia ere momentu horretan atera genien. Zorionak bie!

**Fidel Berecibarrek**, argazkian, **Jesus Lopez de Munainek** eta **Ramon Sarasolak 14 kiloko perretxikoa**



aurkitu zuten pasa den igandean, Arabako Elguea mendilerroan. Ikusi nahi duzuenok Udalpe elkartearen aurkituko duzue. ▶



**PEUGEOT - TALBOT** **IBABE GARAJEA**

Salmenta eta zerbitzua

**MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA**

Gesalbar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

**ARRASATE PRESS**



**77 05 65**

**ARLUTZ**  
taberna

Mitarte, 16 ARETXABALETA Tfnoa: 79 32 34

**UGARTE**

Industri hornidurak

Arrasate pasealekua

Tfnoa: 79 73 00 / 79 83 96

Telefax: 793412



Pasa den larunbatean **Besaide eta**

**ASAre**n arteko **desafioak** Kurtzetaraino eraman gintuen. Bi taldeen artean nor lehena heldu izan zen desafioa, azkenean Besaideko Jesus Marik lortu zuen irabaztea. Baina ez pentsa gauza erraza izan zenika, ASA taldekoak ere bere atzean sartu ziren eta.




Ostiralean Arrasateko **Astorek** bisita izan zuen: **Bidebieta Corte Blanco**, nesken eskubaloi ekipoko jokalaririk batzuk izan ziren. Jokalarien artean **Jasone Diaz de Gereñu** eta beste errusiar bat eta bestalde, lehendakaria eta esponsorra den **Jabier Blanco** esponsorra, **Nestor Martinez** delegatua eta Jabier Iriarte entrenetzailea ere izan ziren.



Igandean **Besaide eguna** ospatu zen. Urtero bezala jende asko bildu zen bertan. Meza ondoren, dantzariak eta jai giroko ekintza desberdinak izan ziren. Laino eta lanbroa izan arren, egun zoragarria pasatzeko aukera ona izan zuten bertara hurbildu zirenak.


# FAGOR



**TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA**

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN

ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA



**ABDON JUARISTI**  
**PINTURA**  
**KLASEAK**

Tfnoa: 76 47 98 (12-2)  
Hasiera: irailak 30  
Espaloia, 16  
BERGARA



**A**rrasatearra, ingeniaria, Montrealen ikasketak burutua eta gaur egun Eskola Politeknikoko irakaslea. Hirugarren Munduaren alde lan egiteko Arrasaten sortu berri den taldeko partaide dugu Jabier.

—Noiztik Arrasaten Hirugarren Munduaren aldeko taldea?

—Gu otsailean hasi ginen lanean, jende sentsibilizatua, Aretxabaleko taldearen berri izan eta bilera bat egin ondoren. Zortzikotea elkartu eta hasieran beste taldearen laguntza gisa hasi ginen. Horrekin batera politikoeekin bildu ginen, aurrekontuak zirela eta, % 0,7 garapen proiektuetarako eskatzeko, beste herri batzuetan ere, Ordizian eta Gasteizen adibidez, antzeko ekimenak aurrera ateratu dira eta.

— Zer garrantzi du %0,7arenak?

— Aurrekontuetan oreka apur bat lortzeko, hemengo gaietaz gain, kanpora ere begiratu behar da nire iritziz. Aurkezteko berandu zen eta bi milioiko partida separatu dute. Oso jarrera ona ikusi dugu Udalean baina orain arte gertatzen zen ez zegoela jendearen aldetik presiorik eta emandako diruarekin ere zailtzak izaten ziren, zertarako, eta norekin harremanetan zeuden jakiteko. Udalak interlokutore edo bitarteko bat behar du gai horietarako eta guk bete dezakegu egin-kizun hori. Gainera, talde apolitiko eta akonfesionala gara, edozein pertsona mota, mugimendu eta eritzitara irekia.

—Arrasateko herria sentsibilizatuta dago horrelako gaietarako?

Jabier Retegi

## Hirugarren mundua, solidaritate kontua



— Arrasatek badu elkartasun tradizio bat eta kooperatibak ere adibide gisa leku askotan jartzen dira. Gainera, hemengo jendea asko joan da beste herrialde batzuetara, bai misiolari gisa bai seglar bezala ere. Sentsibilitatea bada, gazteak ere bidai asko egin eta beste errealitate batzuk ezagutzeko beste ikuspegi bat hartzen du. Gure asmoa sentsibilitate guzti hori batzea eta kanalizatzea da, identitate bat eman eta proiektua aurrera ateratzea.

Hor badago arlo bat baina asko landu behar da. Ziri-miriak bezala egin nahi dugu, poliki-poliki dena busti, eta ez euri zaparradak bezala dena aurrean eraman. Arrasatek badu kooperatiba mugimenduagatik sona, eta orain ia gai garen beste herri batzuekiko solidaritatea ezaugarritzat hartzeko

—Zuk Kanadan ikasi zenuen eta han ere izan duzu gai hauetan murgiltzeko aukera, ezta?

— Bai, Montrealen egon

nintzen eta Kanada oso eza-guna da hirugarren mundura laguntza handia ematen duelako, ONG asko dagoela, eta laguntza hori ematearen arrazoietako bat emigrante asko egotea izan daiteke.

— Nola funtzionatzen dute ONGek?

— Gobernuen bidez lan egin beharrean, erakunde ez gubernamentalek, ONGek proposatutako proiektuak ekarri, eta laguntzak ONGetara bideratzen dira. Zentzu horretan, gu ere horixe gara, Arrasate eta ONGen arteko bitartekari, kanpoko errealitate positibo zein negatiboak ezagutu eta herrian ezagutarazi, hirugarren mundutik ere asko ikas dezakegu eta. Gainera, azpimarratu beharra dago batez ere "ekonomia sustentable" deritzona duten proiektuak babestea dela helburua, hau da, laguntza puntual eta urgentziakoko ondo daude eta egoera askotan, gerra eta antzekoetan, oso beharrezko dira, baina laguntza hutsa eman barik, herri horrek aurrera egin dezan eta bere buruaren jabe egin dadin ahalegindu behar dugu.

— Zuekin harremanetan jartzeko?

— Oraindik ez dugu lokalik, baina 79 21 70 telefonora deitu dezake interesatuak. Horretaz gain, Aretxabaleko taldearekin batera martxan dugun Indiako proiektuan laguntzeko, kontu zenbakian batzuk ere ireki ditugu: Lan Kide Aurrezkian 038.0.04435.3 eta Kutxan 0651124/0. Jendeari esan nahi diogu ez daukagula ideiarik ere zenbaterainoko laguntza eman dezakegun guretzat huskeria diren gauzekin. Justizia kontua da, eta justizia ez balitz ere, solidaritate hutsagatik ere egin behar genuke.

— **Udal aurrekontuen %0,7 garapen proiektuetarako bideratu behar da**

# Odolemaleen zainak, besteen bizi-iturri

*Urtean bi aldiz, 1979az geroztik, Arabako Odol Bankuko furgoneta Arrasateko anbulategira etortzen da. Bertan, txoferra, sendagilea eta lau erizainez osatutako taldea. Minutu batzuetan odola atera ahal izateko tresnak prestatzen dituzte, odol-emaleak agertzearen zai.*

## Ordu-erdiko kontua

**A**rratsaldeko 4.30ak pasatxo dira lehen odol-emaleak agertzen direnerako. Berehala, odola eman ahal izateko bete behar dituzten baldintzak azaltzen dituen orri bana luzatzen die erizain batek, datu pertsonalak jasotzeko fitxa batekin batera.

Orrian jartzen duenaren arabera, odola eman ahal izateko 18 urte eta 50 kilo izan behar dira gutxienez. Bixesuala edo drogazalea, eta Afrika erdikaldean edota Haitin bizi izandakoa izanez gero, ezin da odolik eman. Era berean, hepatitis, sifilisa, tuberkulosia edo bihotzeko gaixoren bat eta beste gaitzen batzuk izateak, galerazi egiten du odola ematea. Edozein modutan, odola orrian jartzen dituen baldintzak beteta ere, oraindik sendagilearekin hitz egin beharko da odola eman aurretik.

Erizain batek tentsioa hartzen duen bitartean, sen-

dagileak iragandako gaixotasun edo hartu diren eta hartzen diren medikamenduei buruz galdetzen du, odola ematea galerazi dezakeen faktoreak dira eta. Gauza okerrik ez badago, atzamarrean emandako zatzada

txiki baten bidez anemia proba egiten da eta ondoren eman daiteke odola.


Pausoz pauso azalduta, odola emateko tramiteak luzeak daiteke pentsa arazi dezake, baina egia bestelakoa da, pare bat minutu nahikoa

dira guzti horiek betetzeko.

Sendagilearen galdeketa bukatu eta gero, etzaulkian lasai-lasai jarri eta beso biak erizainen eskuetan uztea besterik ez dago. Eurek, bietatik bat aukeratzen dute, zain lodienak dituen normalean, orratza sartu eta eskua zabaldu eta itxi egiteko esaten diote etzandakoari. Gutxi gorabehera, bost minututan 400 zentilitrotako poltsatxoa betetzen da. Orratza atera eta apur batean bertan egon eta gero, odol-emalea zutitu egin ahal izaten da. Itxaron gelara irten eta berrindartzeko ogitartekoren bat, kafesne katilukada bat edo pasteltxo batzuk hartzeko aukera dago. Eta horrenbestez, nahiko da, bukatuta odol ematea.

## Odol-emaleak, baina nolakoak?

**L**ehen aldian urduritasun puntua sortu eta ondorengoetan errutina bihurtzen da odol-ematearen esperientzia, gutxienez zazpirehun arrasatearrek ezagutzen dutena, Arabako Odol



Odola ematerakoan eskua itxi eta zabaldu egin behar izaten da

Bankuan daudenak behintzat. Hala ere, furgoneta hemengo anbulategira hurbiltzen den bakoitzean, askalo zergatik, ez dira guztiak hurbiltzen: batz bestea, furgoneta hemen egoten den egun bakoitzeko 40-45 lagun, eta kontuan hartu behar da horietatik 8-10ek ezin izaten dutela odolik eman, asmoa izan arren.

Normalean odola ematen duen arrasatearraren argazki errobota azken aldean poliki-poliki aldatzen ari da. Orain arte, odol-emale gehienak gizonezkoak ziren, O+ eta A+ odolekoak eta berrogei urtetik gorakoak. Azken aldean, dirudienez, gauzak aldatuz doaz, gizonezkoak nagusi badira ere, odola ematen duten emakumezkoen



Zainetan orratz bat sartu eta gutxi gorabehera bost minutuetan betetzen da poltsatxoa.

kopuruak gorantz egin duen neurrian, emaleen adinak behera egin du, eta, 30 urte-

koa da batzbestekoa.

Aldaketa hori ez da nolana hori sortutakoa izan, unitate mugikorren sorrerarekin zerikusia du, batez ere. Lehen, norberak joan behar izaten zuen odola ateratzen zen tokietara; orain, berriz, odola ateratzen dutenak etortzen dira norberarengana. Gainera, esan daiteke, odolemale gehienak nagi samarrak direla, nahiz eta aurrez kaleko hormetan txartelak itsatsi, noiz tokatzen den abixua eman behar izan zaie eta. Horretaz gain, aipagarria da azken aldean unitate mugikorrek ikastetxeetara egiten dituen bisitak areagotu egin direla. Datorren hilean, esaterako, urriaren 14 eta 15ean, unitate mugikorra Eskola Politeknikoan izango da, ikasleek eskatuta.

### Eta gero?

**O**dola ematea, ahal izanez gero, samurra da. Baina, zer eginten da gero odol horrekin. Arabako Odol Bankuan ziotenez, odola jaso eta gero, laborategietara eramaten omen da, transfunditu eta infekziorik, gaixotasun benerearik edo HIES-ik dagoen aztertzeko. Okerren bat duen odolik agertuko balitz, berehala erretiratu egingo litzateke eta odol hori eman duenari deitu, sendagilearekin harremanetan jar dadin.

Ondo dagoen odola, berriz, inguruko Ospitaletara bidaltzen da, behar den tokietan erabil dezaten, odol-emale diren eta emale ez direnentzat. Beharra dugunean hartzea guztioi gustatuko litzaziguke, eta ematea?

## Ordu-erdi anbulategian

**Sarak** urtean bi bider ematen du odola, "Besteei mesede egitea da. 1965an etorri nintzen lehen aldiz, eta inoiz ez dut emateko arazorik izan"; beragaz **Rosalina** etorri da, "Gaur bigarrenoz nator. Noizbait izaten da lehen aldia eta niretzat aurrekoa izan zen; uste dut beharra dagoela eta ez duenarentzat gauza ona dela".

**Dionisiok** bi urte t'erdi daramatza odola ematen, eta ordura arte sekula pentsatu barik zeukala aitortzen du. Hori bai, hasieran izugarriko nerbioak zituela zioen.

**Manuela eta Juan** senar-emazteak lehen aldiz datoz, "Urduri gaude, baina guk ere odola jaso genuen eta seme-alabek etortzeko esan digute".


**Jabier**, lehen aldiz etorri da gaur, ohizko tramiteak bete eta odola eman du. "Problema barik, hurrengoan enteratzen banaiz etorriko naiz berriro".

# Berango



## Sukalde-altzariak, mahaiak eta aulkiak

Erakusketa: Legarre pabiloia z/g, Gipuzkoa etorb. Tfnoa: 79 01 92 ARRASATE



## Txirrindulari Elkartea jende bila

Arrasateko Txirrindulari Elkarteak, jende berriaren bila ari dira. Txirrindulari Elkarteak, txanda hartzeko garaia heldu zaiela erizten diote eta aurtengo kanpaina amaitutakoan, kargu guztiak bertan behera utziko dituzte.

Zuzendaritza zaharraren desagerpenak Elkartearena ekar ez dezan, oraingoaren partaide guztiak Zuzendaritza-Batzorde berriari laguntzeko prest daude. Azken hau sortuko balitz, ekonomikoki arazorik ez duen elkartea zuzendu beharko luke. Aurrera be-

gira, Zuzendaritza-Batzorde berriaren eginbehar garrantzitsuena 1994ko Euskal Herriko Itzuliaren irteera eta lehen etapa antolatzea izango litzateke. Edozein modutan, nahiz eta Txirrindulari Elkartea ez berrantolatu, proba hori hemen burutuko litzateke, Zuzendaritza-Batzorde zaharrak konpromezua hartuta bait du.

Arrasateko Txirrindulari Elkartean lana egiteko interesa duen edonork, ondorengo telefono zenbakietara dei egin dezake: 79 12 00 (Juldain) eta 79 05 86 (Gorroño).

## Hurrengo partidua

Igande arratsaldean Touring taldea etorriko da Atxabalpeko futbol zelaian jokoan jarriko diren bi puntuak eramatekotan, horrela uste zuten behintzat Mondrako entrenatzaileak, "Joan den igandean, Urolari 3 eta 0 irabazi ondoren eta gure sailkapena ikusita, moralez etorriko dira".

Moral handiz edo txikiz etorrita ere, Mondrak irabazi egin beharko du igandeko partidua. "Guretzat garrantzitsua da, galtzen badugu behean geratu gara eta. Finala bezala izango da; gainera, irabazi ezkerro kanpora beste mentalitate batez gaz josteke moduan izango gara".

Touring taldeak iaz igo zuen preferentetik eta ia ez du aldaketarik izan, horregatik arerio arriskutsua izan daiteke. "Iaz preferentean talde ona zuen, defentsan sendoa eta bi aurrelari oso azkarrekin. Baliteke igandean ere, Errenteriakoak horrela jokatzea. Horri aurre egiteko, gu seguruen bi zentral eta bi markatzailez irtingo gara, baina baliteke, partiduen martxaren arabera, gero hiru markatzaile eta libero batekin jokatzea pasatzea". Ea bada, Ifaki Zeziagaren nahiak betetzen diren, komeni da eta.



## Saskibalo denboraldiaren hasiera

Joan den asteburuan Oñatin Juven taldearen aurka jokatutako partidua 87-64 galdu eta gero, Arrasate Saskibalo taldeak bukatutzat eman zuen aurrendenboraldia. Denboraldi ofizialari gaur bertan emango zaio hasiera, Musakolako kiroldegian eta Durangoko Tabirako taldearen aurka, arratsaldeko 8etan.

## Emakume futbolarien lehen partidua

Igande goizean Mondrako emakumezkoen taldeak aurtengo denboraldiari ekingo dio, Lesakako Bortziriak taldearen aurkako partiduen bidez. Taldearen helburua txapelketako lehen edo bigarren postua lortzea da, iazko talde bera dauka eta. Entrenamenduak astearte eta ostiraletan izango dira. Atxabalpe eta Kiroldegian. Lehen partidua, Atxabalpen igandean 11etan.



**FANCY**

**GAZTEEN MODA!** Bizkaia Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24


**ARRASATE PRESS**

**77 05 65**

## JESUS MARI BARRENA

### ASA-Besaide desafioan garaile

# PODIUMA



**B**esaidetar eta ASAtarrek joan den larunbatean burututako desafioaren irabazlea dugu Jesus Mari Barrena, *Ketxuma*, hogeitabat urteko gaztea, berez mendizale, baina bizikleta gainean ere, ondo baino hobeto ibiltzen dena. "Samur irabazi nuen, ASAtarrak motel samar ikusi nituen eta. Aurrez, hobeto ibiliko zirela uste nuen, baina erabat dezepzionatu ninduten, dirudienez gutxi prestatu ziren". *Ketxuma* bera ere, ez omen zen gehiegi prestatu, "4 edo 5 bider Kurtzetara joan eta mendiko bizikletan apur bat ibili, baina egun batzutan bakarrik".

Prestaketa motza eginda ere, ASAtarrek ezin izan zuten muturra lehenpostuetan sartu. Sei lehenengoen artean, hirugarrena bakarrik izan zen ASAKoa, gainotzekoak besaidetarrak; hori bai, Besaidekoen zazpigarrena sartu orduko ASAKo bost gizon sartu ziren tartean. Hala eta guztiz ere, palizaz hitzegiten du Jesus Mari Barrenak. "Ez dago konfirmatuta baina uste dut ASAK errebantxa mus-ean egitea proposatu duela; behar bada hortan irabaziko dute, behintzat errebantxa bizikletan egiteari buruz ez dute ezer

esan, ez da arraroa, paliza ederra hartu zuten eta. Hor ikusten da, ASAKoek asko hitz egin eta gutxi egin".

Besaidetarren aldeko pintada ugari ikus zitezkeen larunbatean Kurtzetara bidean, baita bertan bildu ziren zaletu askoren txaloak entzun ere, "Horrek beti animatzen du, beti ematen du poz apur bat jendea animatzen ikusteak. Jende gutxiago egongo zelakoan nengoen, eta sorpresa handia hartu nuen hainbeste zale ikusterakoan, noski, gu animatzen eta ez ASAKoak".

Alpeetan eta Pirineotan ibilitako mutila dugu *Ketxuma*, txikitatik mendiarekiko zaletasuna duenez, izerdia atera eta gero ikus daitezkeen paisaiez gozaten duen horietakoa, mutil sanoa. "Sanoegia, -zioen ASAKo buruetariko batek- hurrengorako *Ketxumari* eraten eta erretzen erakusteko emakume batzuk kontratatu behar ditugu". "Alperrik dabilta -zioen *Ketxumak*- edan, pasatu barik, baina edaten dut, eta erre... jaietan eta horrela".

#### ◆ Everest-a gero eta gertuago "Trailak, 15.

Namaste Euskadi!!

Atzo, irailak 14, 3. kanpamendura iritsi gara (7.300m). Eguraldia nahiko ona da, nahiz eta tarteka oraindik monzoioak bere eragina izan. 3. kanpamendura iristeko bi egunetako lana behar izan dugu, nahiz eta 3 egun tardau, bat eguraldi txarra egin bait zuen.

Orain gure asmoak hauek dira: irailak 15 2. kanpamenduan atsedena hartu. Irailak 16an, 3. kanpamendura igo eta bertan lo egin. Irailak 17an beheko kanpamendura jaitsi 4-5 bat egun des-katsatzera. Ondoren, berriz hasi gara lanean gorantza begira. Orain arte gauzak nahiko ongi irten zaizkigu, aurrerantzean ere horrela izatea espero dugu.

Besterik gabe, laster arte!"

Beraz, lerro hauek argia ikusten dutenerako Iñurrategitarrak eta Jose Ramon Zubizarreta dagoeneko 4. kanpamendua jartzekotan ibiliko dira. Datorren asterako seguruen.

#### ◆ Zaldibarren 72 talde

Iaz bezala, aurtan ere 72 taldek eman dute izena Zaldibarko Futbito Txapelketan jokatu ahal izateko. Aipatutako 72 taldeak 4 multzotan banatu dituzte, Maritxu Kajoi bixamonean txapelketari hasiera emateko.

#### ◆ San Miguel pilota txapelketa

Gaur gaueko 10.30etatik aurrera, Aretxabaletako Iturrigorri frontoian San Miguel pilota txapelketako finalak jokatu dira. Lehen partiduan, 3. eta 4. postuak erabakitzeko, Errasti eta Galleanok Ubera eta Uribarrenen aurka jokatu dute. Finalean, Arrasateko bikote bat izango da, Korta eta Zuazubiskarrek osatzen dutena; arerioak Errasti anaiak, atxabaltarrak.



## GRETEL

### Zatoz gure gazte moda ezagutzera

Italora Lizentziatua, 5  
Tfnoa: 77 00 81  
ARRASATE

## ARRASATE HOTELA



Biteri, 1 Tfnoa: 79 14 16

# Kurtzetako aldapan gora

**1** 1992ko irailaren 19a, Besaide eta ASako kideek luzaroan ahaztuko ez duten eguna. Uztailean hasi zen historia hau. Baten batek jaurti zuen lehen enbidioa eta serixo erantzun ere.

Oporrak igaro ostean, tiriti tarra ibili da entrenatzen ASA eta Besaideko jendea.

Aurreko astelehenean bi taldeak batu eta antolamendu-lanak prestatu zituzten. Talde bakoitzaren lehen sei postuen denborak batzekotan geratu ziren, eta denbora gutxien zuenak irabaziko zuela. Gauzak argi eta garbi.

Irailaren 19a, arratsaldeko 5etan hurbildu ziren protagonistok Sebero Altubera.



Dortsalak banatu eta jarri, argazkiak atera.... Talde bakoitzean 10/11 lagun.

Hasieratik "Besaide" protagonista. Lehen erasoak jo eta berehalakoan ASako bat atzetik, benetako lasterketan legez. Tropelean, bata bestearen atzetik. Garagar-

tzaraino indarrak ondo neurtu behar, Arabako mugaldera indartsu heltzeko. Ordurako batzuk atzean.

Borroka Aramaixon hasi zen. Besaidek erasoak jo eta ASak eutsi; bi lagunek egin zuten aurrera, tropela atzean utzi guran... Aldatza hasi eta

Besaidetarren erasoak, Ketxumaren eskutik, gero leher izango zena. Besaideko bi kide aurretik, ASako bi jarraian eta gero Besaidetarrek. Bidean Besaidekoen aldeko pintadak....

Garbi zegoen erripan gora Besaidekoak gehiago zirela, baina ASakoak, gauza izan ziren neurriari eusteko eta atze-atzean ez geraketako.

Amaieran Besaidetarrek irabazle ezelako zalantza bariarik. Txanpana, argazkiak... eta lasterketa ikusten egon zen jende piloaren txaloak jaso zituzten.


Hurrengoak ez dakigu zer ekarriko duen, baina zeozer datorrelakoan, zer gertatuko ere, zeozer asmaketan hasi bide dira bi taldeak.

K. U.

## "BELAUNALDI GAZTEA" III. Argazki lehiaketa

Lanak aurkezteko epea: **urriak 2**

- Partehartzaileak: 14-35 urte bitartekoak.
- Zuribeltz nahiz koloretan.
- Sariak:
  1. 60.000 PTA
  2. 40.000 PTA
  3. 30.000 PTA
- Akzesita: 20.000 PTA



Jabier Ozaeta

# • EGIN EUSKARARI •

Erakusketa Ibiltaria

## EUSKARA GIZARTERATZEARI BURUZKO ERAKUSKETA

**Arrasateko Monterron Jauregian  
Irailak 18tik 27ra**

**Ordutegia: Astegunetan, 6-8**

**Larunbat eta igandean, 12-2 eta 6-8**

Antolatzailea:

**Arrasateko Udala**

Babeslea:

**Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako**

**Idazkaritza Nagusia**



# Taun-taun taldea, txotxongiloaren ordua

**T**aun-Taun Bergarako kolektiboak gaur gaueko 10etatik aurrera, Monterronen "Taun Taun show" izeneko ikuskizuna eskainiko du. Ikuskizun honetan, Taun Taun-ek New Orleanseko giroa eta zenbait pertsonairen gorabeherak ikusi ahal izango dira: Barby bedette-a, Velcro Band, Sami claquete-ko izarra... ondo pasatzeko helburuarekin.

Taun-Taun kolektiboa 1987. urtean sortu zen Bergaran, eguneroko aspergarritasunak eta txotxongiloenganako maitasunak eraginda. Hasieran harien teknika landu bazuten ere, on-

doren beste teknika batzuetan espezializatu dira.

Orain arte egindako ikuskizun gehienak pertsona

helduentzat izan badira, hurrei zuzendutakoak ere egin dituzte, euskaraz nahiz

gazteleraz. Nazioarteko hainbat jaialdian hartu dute parte, arrakasta lortuz. Ikastetxeetan titerik ikastaroak eskaini dituzte, eta baita beste antzerki taldeentzat lan bereziak egin ere.

Taun-Taun honako pertsona hauek osatzen dute: Inazio Azkargorta (ekintza eta manipulazioa), Iñaki Mata (Ekoizpena, argi jokua eta soinua), Karmele Perez (manipulazioa), Pilar Garcia (manipulazioa), Xabier Labayen (musika), Itsaso Azkarate (zuzendaritza), Karlos Odriozola (zuzendaritza) eta Juan Martin Elexpuru (itzulpena).



## **BULARREKO PATOLOGI UNITATEA**

### **Mamografia**

**Gune susmagarriak aurkitzea.**

**Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.**

**Bularreko ekografiak.**

**Bularreko tumoreen zitologia.**

**Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.**

# **GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA**



**DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.**

**Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18**



## ◆ Arrasateko abeslarien emanaldiak

San Juan elizako abeslariak diren Joxe Mari Mendizabal, Karmelo Eriz, Patxi Nafarrate eta Pedro Zumelagak, Iruñeako abesbatzarekin abestu zuten asteazkenean 23an Euskadiko Orkestarekin. Gayarre antzokian izango da eta Beethoven-ren "Missa Solemnis" obra abestuz. Ondoren, Sevillan bi emanaldi izango dituzte: Maestranza antzokian gaur eta urriaren 8an Britten-eren "War Requiem" obra abestuz. Azken honetan Bilboko koralarekin. Urriaren 9an Madrileko Auditorium-ean eta azkenik, urriaren 10ean Bilboko Arriagan izango dira.

## ◆ Argazkigintza eta Euskal Dantza ikastaroa

Gazteentzako Informazio Zerbitzuak bi ikastaro antolatatu ditu. Argazkigintza ikastaroa eta Euskal Dantza. Argazkigintzako ikastaroan interesaturik daudenek, 1.000 pezeta ordaindu beharko dute, astearte eta ostegunetan izango dira klaseak, 7etatik 9etara. Euskal Dantza ikastaroa 14 urtetik gorakoei dago zuzenduta. Ostiraletan, 7.30etatik 8etara izango da, urriaren 16tik abenduko 18ra. Lore Gazteak taldekoak izango dira klaseen arduradunak. Plazak mugatuak dira eta izena emateko Gazteentzako Informazio Bulegora zuzendu.

## Casilda Agirre

### Lau urte eskulanak egiten

Jubilatuentzat egoitza desberdinetan antolatzen diren eskulanean ikastarotan parte hartzen dutenatariko bat dugu Casilda.

— Zer lan mota egiten dituzue ikastaro hauetan?

— Martxan jarri zenetik joaten naiz, orain lau urte gutxigorabehera eta egiten ditugun lan motak era guztietakoak dira: portzelana errusiarra, tarazea, hiru dimentsiotako lanak, kristalean grabatuak, estainua eta pintura.

— Eta zein da gehien gustatzen zaizuna?

— Kristalean grabatzea eta baita tarazea ere. Azken teknika honetan, egur gainean irudi eta forma desberdinak marrazten eta dibujatu egiten dira, moztu eta ondoren montajea egiten da. Nahi dudana paisaia edo beste edozer gauza montatu dezaket teknika horren bidez. Hori da gehien gustatzen zaidana, baina gauza batzuk oso zailak dira niretzat, koloreak konbinatzea adibidez, kolore desberdin asko konbinatu behar izaten dira eta askotan oso zaila da bat zeinekin konbinatu daitekeen jakitea.

— Trebezia berez izan behar da ala ikasi egiten da?



— Bai, pizka bat bai behintzat. Eta ez bakarrik trebetasuna, bista apur bat ere izan behar da. Baina zentzu honetan, bakoitzak aukeratu du lan guztietatik, ondoen doakiona. Nik zorionez bista ona daukat eta ia denetatik egiten dut, baina beste batzuk ezin izaten dute denetik egin. Bakoitzaren gustoa eta lanetan igartzen da.

— Zein da ikastaro honen funtzioa zuretzat?

“Denbora pasatzeko modu onena da eskulanak egitea”

— Askok laguntzen dit, denbora pasatzeko modu egokiena delako eta gainera eskulanak egitea gustatu egiten zaidalako. Askotan pentsatzen dut eguna etxean pasatu beharra helduko zaidala eta orduan oso polita izango dela zer egin eukitzea. Baina badu beste abantaila handi bat, jende berria ezagutzen dela. Urtero urtero jendea aldatuz joaten da, ia berdinak mantendu egiten gara, baina batzuk joan eta beste batzuk etorri egiten dira.

— Zenbat erakusketetan hartu duzu parte?

— Izan diren guztietan. Lehenengo bi urtetan Abaroan izan zen eta azken bietan Monterronen. Gainera Donostian Gipuzkoako denok izan genuen erakusketan ere hartu nuen parte. Ilusio handia egiten dit nire lanak herri denak ikusten duen erakusketa batean erakus-teak. Nire lagun asko pasa dira Monterronetik azken aste honetan. Aurten egin ditudan lan guztiak erakutsi ditut, oso zailak eta denbora askoan egitekoak eta horregatik gutxi izan dira. Beste jubilatu batzuk, egindako batzuk bakarrik erakutsi dituzte.



## ETXEPARE - BILINTX LIBURUBENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai, 12 BERGARA Tfnoa: 76 40 50

Aste gazte

Harvardko Unibertsitateak egindako ikerketa baten arabera, bizikletaz ibiltzeak bizi-itxaropena 2 urte inguru luza dezake eta ziklistak 10 urte gazteago sentiarazi.

Lanpostuak

• Bergarako Udalak honako lanpostu hauek betetzeko deialdia egin du: itzultzaile-trebetzailea, administraria, peritu agronomoa eta elektrizista. Oinarriak: Irailaren 16ko GAO. Inстанtziak aurkezteko epea: Urriak 6.

Artista Gazteei

• 20-3-urte bitarteko gazteei zuzendutako "Pepinieres" 1992-93 egitaraua, atzerrian aritzeko beka eta diru-



laguntzak. Iraupena: 3-9 hilabete. Epea: Urriak 15.

Dirulaguntzak

• Iraupen laburreko arte-eremuko sakontze-ikastaroan parte hartzeko dirulaguntzak. Arte eremuko edozein arlotan: arte plastiko, eskulangintza, dantza, antzerkia, musika, ikus-entzuteko, e. abarretan. Estatu espainolean nahiz atzerrian. Eskabideak aurkezteko epea: proiektua burutzeko data baino, gutxienez, hilabete lehenago.

Unibertsitateerako autobusak

• Garraio-enpresa bat Bilbo edo Donostia Fakultetetara egunero joan-etortzeko autobusak antolatze-

kotan dagoela eta, interesa duzenok Gazteentzako Informazio Bulegoan eman dezakezazue izena. Lehen-baitlehen.

Aisialdi-begirale eta zuzendari ikastaroak

• "Urtxintxa" Hezitzaile Eskola 92-93 ikasturterako formazio-plana: begirale, zuzendari, heziketa sexuala eta ikastaro monografikoak. Titulazio ofiziala. Asteburuetan, aterpetxean. Matrikula-epea: Irailak 21 Urriak 2.

Ikastaroak

• Mendiko Orientazio Ikastaroa, Gipuzkoako Goi Mendi Eskolak antolatuta. Ikastaro teoriko-praktikoa.

Egunak: Urriak 17/18 eta 24/25. Brinkolako aterpean. Matrikula: 15.000 PTA (ikastaroa, dokumentazioa eta pentsio osoa barne).

Lehiaketak

• Euskadiko X. Euskal Antzerki Topaketak iragaritzeko Kartel-Lehiaketa. Material eta teknika libreak. Sari bakarra: 100.000 PTA. Epea: Urriak 5.

• "Sustatu'92" Gizarte Zerbitzuen Sustapenaren Euskadi Sariak. Modalitateak: Argazkigintza, Kazetaritza, Irratia, Ikusentzuzko Baliabideak, Ikerketa eta Aparteko Sustatu Saria. Gaiak, modalitate guztietan, Gizarte Zerbitzuekin zerikusia izan behar du.

# HITZALDIA

## 'Maastricht-en gorabeherak'

### Ulertzeko moduan

- Zer da Maastricht-eko ituna?
- Zer eragin izango du herritarrongan epe motzean?
- Erreferenduma Iparraldean.

Abertzaleen eritziak eta ondorioak.

### Hizlariak

**Jose Mari Agirre** (EUSTAT-eko zuzendaria eta ekonomilaria),  
**Luzien Etxebarreta** (Iparraldeko kazetaria Egunkarian).

Tokia: **Monterron Kultur-Etxea**  
Eguna: **asteartea, 29**  
Ordua: **7etan**



## ETXEBIZITZAK

- Etxebizitza berria salgai Zarugalden. Tfnoa: 945 - 25 89 03.
- Donostian logela baten bila dabilen neska bat naiz. Datorren ikasturterako lekuri baldin baduzu, dei egin eguerdian 79 97 69 tfnora.
- Bost ikaslek etxebizitza behar dute Arrasate inguruan. Tfnoa: 88 67 23.
- Etxebizitza salgai San Andresen. Foruen Plaza, 3 5 Ezk. Tfnoak: 79 47 28 eta (945) 44 51 99.
- Donostian pisua alokagai ikasleentzat. Alto de Rondon. Ikasturtean bakarrik. Tfnoa: 79 43 56. Itxaro.
- Bi irakasle pisu bila Arrasaten. Dei egin egunez 79 04 11 edo gauzez 88 66 23 tfnora. Arantzazu.
- Ikasle batek logela behar du Arrasaten. Dei egin 28 75 70 tfnora.
- Zaragozan pisua osatzeko neska euskalduna behar dugu. Tfnoak: 79 28 71 eta 75 19 98.

## LANA

- Emakume euskalduna etxeko lanak egin eta umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Tfnoa: 79 07 73.
- Zuzendaritzako Idazkaria lanerako eta etxean lanak ordenagailuz pasatzeko prest. Tfnoa: 79 97 30.
- Umeak edo pertsona nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest neska. Tfnoa: 79 97 30.
- Umeak zaintzeko arratsaldetarako neska euskalduna behar da. Tfnoa: 79 69 96.
- OHOKO klase partikularrak ematen dira. Deiegin 79 27 37 tfnoara.

- Neska gertu pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Dei egin arratsaldez 79 72 92 tfnora.
- Umeentzako klase partikularrak ematen ditut. Edozein gai. Tfnoa: 79 31 48.
- 46 urteko emakume euskalduna etxeak garbitu edo pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Tfnoa: 79 38 01.
- Klase partikularrak ematen dira urte osoan. Talde txikiak. Pertsonal espezializatua. Dei egin arratsaldez 79 93 03.
- OHOKO klase partikularrak ematen dira. Tfnoa: 79 27 37.
- Neska prest OHOKO klase partikularrak emateko. Dei egin 79 68 18 tfnora.
- Ingelesa ikasi nahi baduzu, hemen duzu aukera. Talde txikiak. Tfnoa: 77 05 77.
- Neska prest umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 72 92.
- Alemanezko klaseak ematen dira. Dei egin edozein ordutan 79 78 75 tfnora.
- Lanak makinan pasatzen dira. Tfnoa: 79 78 75
- OHOKO klase partikularrak ematen dira. Tfnoa: 79 38 58.
- Neska euskalduna behar da Gasteizen etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Tfnoa: (945) 24 48 52.
- OHOKO klase partikularrak ematen dira eta euskarako maila guztiak. Tfnoa: 77 04 98. Marije.
- Edozein lan mota egingo nuke. Dei egin arratsaldetan 79 50 30 tfnora. Jose Migel.
- Neska prest umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Dei egin 10etatik 3etara. Tfnoa: 76 05 63.

## SALEROSKETAK

- Razesa markako karreterako txirrindua salgai. Egoera onean dago eta oso prezio interesgarria du. Dei egin eguerdian 79 97 69 tfnora. Iban.
- Opel Corsa SS-X salgai. Berri-berria dago. 76.000 km ditu. Prezioa 380.000 PTA. Tfnoa: 79 55 75.
- Umeentzako seaska eta kalean ibiltzeko karroa salgai. Tfnoa: 79 77 79.
- 9 hila beteko bideo-joku kotsola (Siega Master System II) salgai. Egoera ezin hobean. Kotsola gehi lau joku prezio onean. Harremanetarako jo (94) 658 33 78 (aste-bukaeratan).
- Bideo kotsola (Jamiko) + 150 jokuko kasetta + 4 jokuko bi kasetta + bi kontrol mando = 15.000 PTA. Dei egin 7etatik aurrera 79 41 91.
- Bost lagunentzako kanping-denda salgai. Tuboak aluminiozkoak ditu. Tfnoa: 78 04 89.
- la berria dagoen akordeoi beltza salgai. Tfnoa: 79 80 91 (Gauetan).
- Derbi FDS-a egoera onean salgai. Dei egin 79 96 76 tfnora edozein ordutan. Josu edo Javi.
- Logela berri bat dut salgai. Tfnoa: 79 10 51 (Goizetan edo gauetan).

## DENETARIK

- Katu gorritxo bat galdu da abuztuan San Andresen, Foruen Plaza inguruan. Zerbait jakinez gero, abisatu: Foruen Plaza, 2-3. esk. edo dei egin 11 84 21 tfnora. Danel.
- Zorionak Amaia eta ongi etorri Aitorri! ARRASATE PRESSEKO lagunak.
- Arantzazuko ama, eskerrak zuri. San Judas Tadeo, eskerrik asko. F. G.



## ARRASATEN HILDAKOAK



Francisco Martinez Garcia,  
irailaren 15ean. 74 urte.

Vicente Barrero Merino,  
irailaren 16an. 80 urte.

Natividad Gomez Cantero,  
irailaren 19an. 77 urte.

Lourdes Barrera Aspiazu,  
irailaren 19an. 78 urte.

Nicolas Errasti Arriola,  
irailaren 21ean. 88 urte.

## ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDE DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA: .....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE

Tfnoa: 77 08 15

# Zer nahiago?

## Mertxe Narro

### Udaltzaina

- Bulegoko lana ala kalekoa? Biak, tartekatuz.
- Trafikoa zuzentzea gustatzen? Ez, ez asko.
- Uniformea egokia da? Bai, nire ustez bai.
- Emakumeenganako diskriminaziorik badago? Ez, keba.
- Arrasate herri lasaia da? Bai normalean bai, baina baditu denboraldi txar batzuk.
- Prestakuntza fisikorik egiten duzu? Ez.
- Zer behar da jendearekin erlazionatzeko? Batez ere atsegina izatea.
- Gona ala prakak? Besteentzat gona, baina nik prakak.
- Multarik jartzen duzu? Bai, beharrezkoa denean...
- Zein da multa gehien jartzeko arrazoia? Txarto aparkatzea.
- Erosketak egitea gustatzen zaizu? Bai.
- Udaltzaingoan artean langiro ona dago? Bai, oso ona.
- Zer egingo zenuke aparkalekuen arazoa konpontzeko? Gehiago egin, baina arazoa da ez dagoela tokirik horretarako ere.
- Eguraldi txarrak tristetu egiten zaitu? Ez, normalean ez.
- Izpilura begiratzean zer ikusten duzu? Ni neu, neure burua.
- Makilajerik erabiltzen duzu? Ez, ez zait asko gustatzen.
- Biziorik? Bai, erretzea.
- E.T. ala Larrozaren izena? Guztiz desberdinak dira baina, biak gustatzen zaizkit.
- Lore bat? Larrosa.
- Ileapaindegira joatea gustatzen zaizu? Bai.
- Dantzalekuetara joaten zara? Ez dut horretarako astirik.
- Txandala, komodoa da zuretzat? Bai, oso.
- ATB ikusten duzu? Ez, beno oso gutxi, ulertzen ez dudanez.



# Bertsotan

## Irailarekin batera

1  
Jende gehiena ibilia da alde batetik-bestera mendi, lautada, Sakana edo bestela itsas aldera opor ostean itzuli gara guztiok berriz lanera on den guztia bukatzen da irailarekin batera.

2  
Oraingo hontan esandakoa hartu ezazu aintzat Atxabaltan ta Oñati aldean jaiak ditugula behintzat giro txarra eta eguraldia ezazu har aitzakitatz aukerarrikan ez da galdetzen festa nahi duenarentzat.

LEIRE GOROSTIZA



## Begoña lurrindegia

Drogeria / Jostailuak

Opariak

Gipuzkoa Etorb. 33,

Musakola Auzoa, Tfnoa: 79 03 73

## Hilbera kafetegia

Uribarri Etorbidea  
ARRASATE

## ARRASATE PRESS



77 05 65



35eko kintoak.

1

935eko kintoek aste honetan ospatu dute euren anaiarteko eguna, aldizkari honetako Txutxumutxuen orrialdean ikusi ahal izan duzue-nez. Aurten

hamasei lagun juntatu dira, batzuk erretiratuta daudela eta, baina errenplazu hartako zerrendan 70 lagun agertzen dira. Horietatik asko hilik daude dagoneko, eta aste honetako erretratua orain 20 bat urte trenaren estaziñoan ateratakoa da, elkartu ziren egin batean egina. Argazkiaren kalitateagatik, eurak ere ez dira denak ezagutzeko gauza izan eta fetxa horietan han egon zitezkeenak

zerrendatik ateratzen saiatu gara, baten baten izena jango dugula jakin arren. Honako hauek dira, alfabeto ordenan: **Zezipio Altuna Sagasta, Jose Mari Ansoategi Iregi, Albino Araolaza Alzelai, Bittor Arana Berasategi, Jose Arana Ibarguen, Eduardo Aristimuño Aierbe, Victoriano Arizabaleta Zabaleta, Jose Antonio Arregi Etxabe, Juan Jose Arsuaga Astondoa, David Arzamendi Enparanza, Jose Mari Azkoaga Arana, Luis Barrutia Gastañaga, Luzio Berezibar Galdos, Santi Dolara Mendizabal, Angel Etxabe Unamuno, Felix Eraña Mujika, Angel Espinosa Morales, Saturnino Ezkurra Areitio, Manuel Garate Umerez, Modesto Garcia Abarrategi, Roman Garitano Jauregi,**

**Joakin Garmendia Alaba, Tomas Garro Uribarren, Patrizio Heriz Agirre, Eustakio Heriz Azkoaga, Tomas Irasuegi Lasaga, Leonardo Mondragon Herrasti, Fakundo Mondragon Sologaitoa, Zosimo Olmedo Paunero, Andres Okina Zeziaga, Domingo Oyanguren Otaduy, Jose del Pozo Riesco, German Sagasta Azkoaga, Juan Mari Sampe-dro Azpiazu, Alfredo Sanz Gonzalo, Hipolito Uriarte Barrutiabengoa, Alejandro Uribetxebarria Mondragon, Angel Uribetxebarria Osinaga, Juan Yarza Abalia, Felix Zeziaga Laspiur, David Zeziaga Ugalde, Martin Zubizarreta Arzamendi, eta Pedro Zumelaga Ozaeta.**



## ERREKi

**Betiko ERREKikoak zuekin berriro**

Egizu erreserba Maritxu Kajoirako!

Fraiskoziuri Enparantza

Tfnoa: 76 38 51 BERGARA



## UXARTE

**Kafetegia,  
gozotegia**


**Gauetz irekita!!**

**JO TA KE!!**

Bañez doktoarea, 12

Tfnoa: 79 07 63 ARRASATE

# Gurutzegrama




## Horizontalak

1. Ezaguna pil-pilean eta bizkaierara
8. Itsasgizon familiaren kalea
9. 2. pertsona sing. errespetuzko eran
10. Arteria handiena
12. Zakil
14. Eusko Langileen Alkartasuna
15. Joan aditzaren erroa
16. Hodi
18. (Ald.) niri, du
20. (Ald.) otarre

## Bertikalak

1. Botaketa
2. Puntan eztena duen makila luzea
3. Zerbait erretzean sortzen da
4. Frai
5. Aurkitu
6. Aztarna
7. Motzondo
11. Titanioa
13. Katu hitz elkartuetan
17. Itsasoan ugari
19. Idi hitz elkartuetan



JUAN BAUTISTA AGORRIA

## Lagundu HIES-aren aurkako burrukan! Egin zaitez HIES EKIMENeko bazkide!

Izen-abizenak .....  
 Helbidea .....  
 Herria ..... Herrialdea ..... Telefonoa .....

<b>BANKURAKO AGINDUA</b>	..... Banketxeko zuzuendari Jn.
	Helbidea .....
	Agentziaren zkia ..... Tfnoa .....
	.....zkidun kontuaren kargura <b>hileroko / hiru hileroko / seihileroko / urteroko*</b> ordainagiriak zorpetzea eskatzen dizut, HIES EKIMENak aukeztuak, .....PTAko balioak, bestelako agindurik ez den artean.
	Eguna ..... Sinadura

\*Ezabatu egoki ez dena. Urtean 2.000 pezeta gutxienez.

BIDALI IRAGARKI HAU HELBIDE HONETARA:  
**HIES EKIMENA**

Arrasate Pasealekua, 3 behea. 79 26 99 telefonoa (erantzungailuaz).20.500 ARRASATE

Gure aldizkaria jasoko duzue etxean (urtean bi ale gutxienez) eta baita informazioa eta opari txiki bat ere.



## Mondragol

Igandean gaueko 9.10etan

Igande honetan Mondragol programak etapa berri bat hasten du, aurkezle berriarekin gainera. Badakizue programa horren funtzioa Mondraren jarritzaleak animatu eta emaitzen berri informatzea dela, ezta? Askok faltan botako zenuten Mondragol, igande honetan hasi eta hurrengokoetan ere izango duzue. Aste honetan Touring ekipoaren kontra jokatuko du. Ea oraingoan irabazten duen!

## Larrugorritan

'Istripuak' da aste honetan aukeratu den gaia.

**Asteartean**  
9.20etan

## Mondra Sport

Gerardo eta Mikelekin, kirola da protagonista

**Astelehena**  
9.20etan

## ATBketan

Pasa den asteko irabazleak berriz izango dira ATBketan.

**Osteguna**  
9.20etan

## Programazioa

27

### IGANDEA

9.10etan **Mondragol**. Mondra-Touring partiduen laburpena izango duzue.

28

### ASTELEHENA

8,8.30 eta 9etan **Berriak**. Eguneroko albisteak zure telebistan.

9.30etan **Mondra Sport**. Igandeko Mondrak jokatu duen partiduen laburpenaz gain, beste kirol batzuk ere aztertuko dira.

10etan **Asteko zinea**: Gauguin basatia.

29

### ASTEARTEA

8,8.30 eta 9etan **Berriak**. Albistegia.

9.30etan **Larrugorritan**. Istripuak aztertuko dira eta horretarako pertsonai desberdinak izango dira bertan.

10etan **Asteko zinea**: Gauguin basatia.

30

### ASTEAZKENA

8,8.30 eta 9etan **Berriak**. Bertako ekitaldi eta albisteen berri ATBn.

9.30etan **Asteko zinea**: Gauguin basatia.

1

### OSTEGUNA

8,8.30 eta 9etan **Berriak**. 9.30etan **ATBketan**. Anne Igartibururekin gazte talde bat da protagonista lehiaketa honetan.

10etan **Asteko zinea**: Gauguin basatia.

2

### OSTIRALA

8,8.30 eta 9etan **Berriak**. Ekonomia, politika, kultura, kirola...

9.30etan **Asteko zinea**: Gauguin basatia.

# Telebegi

## Fitxajeak

Larunbat euritsuak egokiak izaten dira, zeregin hoberik izan ezean behintzat, telebista ikusteko; eta nik egia esan ez dut zeregin handirik izaten ez larunbat eta ez lanegunetan ere.

Kontuak kontu, eta esan bezala, horretan nenbilen ni joan den asteen, mandoa esku batean hartu, zerbeza lata bestean, katetik katera nere begirada indiskretua pasiatzen.


Halako batian ZASPI!, aurpegi ezaguna pantailan; gaztea, irrifartsua. Zuzen begiratu nion telebistari, ikusitakoa ziurtatu nahian edo, eta halako beste batian ZASPA!, Anuska Lasa arrasatearra eta ATBko aurkezle ohia berriro pantailan. Herriko telebistan baino zertxobait urduriago ikusi nuen beste kate horretan, lotsatiago ere bai, baina orohar, ondo egiten zuen lan Anuskak. Programa bera, musikala, xelebrea iruditu zitzaidan, arrunta erabat, orain gogoan ez daukadan arren, horrelakoxea, aldrebesa.

Gauzak honela, ez nintzateke batereh arrituko, larunbatean baten, batean mandua eta bestetan zerbeza, nere begiek Jon Andueza, Anne Igartiburu, edo Maider Egües-en irudiarekin topo egingo balute herrikoa ez den katen batetan. Adi egon behar aurrerantzean.

ANDONI URZELAI



OPEL ASTRA BERRIA



Puntuantzeko Injekziodun Astra motore-serie berria, potentzia handiagoa cm<sup>3</sup>-ko.

# POTENTZIA ADIMENTSUA

*Imajinatu! Opel Kontzesionariak  
Opel Astra berriaren potentzia  
egiaztatzena gonbidatzen zaitu.*

*Beti zurea,  
Opel Astra.*



Imajinatu Astra motore berrien posibilitateak.  
Imajinatu 82tik 150 CV-erainoko potentzia adimentsua.  
Imajinatu, zeure ekonomian pentsatzen duen potentzia, eta eraginkorra, azken-azkeneko.  
Puntuantzeko Injekzio Sekuentziala duena.  
Ekologiaren adiskide, 3 bideko Katalisatzailea integratuta. Imajinatu, potentzia adimenarekin bat eginda. Opel potentzia duzu.

Gidatzeko atsegina dagoeneko ez da zilindrada-kontua, adimen-kontua baizik.  
Egiaztatu zeure Opel Kontzesionari Ofizialean.  
Gonbidatua zaude.

**OPEL**

**BADAZU OPEL ASTRA-RIK 1.547.000 PZTA.\***

OPEL ASTRA, ALEMANIAKO INJINERUTZA ETORKIZUNERAKO

\* Fabrikatzeileak gomendaturiko prezioak (Penintsula eta Balearerarako), garraioa, BEZ eta emate-aurreko gastuak barne. Kopuru handiko salmentak ere bai. Eska informazioa zeure Opel Kontzesionari Ofizialari eta finantziario eta leasing-erako, ez ahaztu Opel Credit, Opel Leasing eta Opel Renting-en baldintza paregabeak.

## TALLERES OLA, S. L.

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. BERGARA (Guipuzkoa)  
Erakusketa ARRASATEn: Loramendi, 2. Tfnoa: 79 05 86  
DEBA ARRO. LEINTZ BAILARA ETA GOIERRI GARAIrako  
kontzesionaria  
Zerbitzu Ofiziala ARETXABALETAn

### TALLERES NORTE

Pol. Ind. BASABE. Pabellón A-13. Tel. 79 62 65

OPEL KONTZESIONARI OFIZIALAK, HOBEAK ESPERIENTZIAZ.